

Erref./Ref.: AA/ai

Esp. Kod./Cod. Expte.: 2020K1150008

BALDINTZA ADMINISTRATIBO BEREZIEN PLEGUA, HONDARRIBIKO HAINBAT KALE ASFALTATZEKO ETA URBANIZAZIO-LAN OSAGARRIAK EGITEKO PROIEKTUAREN IDAZKETA ETA OBRA ZUZENDARITZAREN KONTRATUA ESLEITZEKO PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ ARAUTUKO DUENA.

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. ERREGIMEN JURIDIKOA

Plegu hau arautzen duen kontratua zerbitzu kontratua da, izaera administratiboa du SPKLren 17 eta 25 artikuluetan zehaztutakoaren arabera eta arautuko da, prestaketa, esleipen, eragin eta iraungitze gaietan, pleguan aurreikusita ez dauden arloetan, hauen bidez:

a) Kontratazioaren alorrean Estatuko oinarritzko legeriaren arabera:

- 9/2017 Legean (azaroaren 8koan, Sektore Publikoko Kontratuei [hemendik aurrera SPKL] buruzkoan) ezarritakoaren arabera.

- Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra, 1098/2001 Errege Dekretuz (urriaren 12koaren bidez) onartua, SPKLan (hemendik aurrera HAKLAO) ezarritakoaren aurka ez doazen gaietan

- 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, 30/2007 Legea (urriaren 30ekoa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa) zati batean garatzen duena..

b) Kontratuen alorrean autonomia erkidegoan dagoen araudia eta hura garatzen duena.

Ordezko moduan, kontratazioari buruzko oinarritzko izaera ez duten Estatuko arauak, zuzenbide administratiboari buruzko beste arauak, eta horiek ez badaude zuzenbide pribatukoak..

Aldeek berariaz bete beharko dute plegu honetan, bere eranskinetan eta baldintza tekniko berezien pleguan ezarritakoa, eta kontratu izaera izango dute dokumentu horiek..

Plegu honen edukira egokituko da kontratua, eta beronen klausulak kontratuaren osagai direla ulertuko da.

Erabat teknikoak diren gaietan salbu, plegu honek indar handiagoa izango du bere xedapen guztietan espedienteari lotuta dauden (baldin badaude) beste baldintza fakultatibo guztiek baino.

2. ESPEDIENTEA ESLEITZEKO PROZEDURA ETA TRAMITATZEKO ERA

Kontratu hau ez dago araubide harmonizatuari lotuta, SPKLren 19 eta 22 artikuluetan zehaztutakoaren arabera.

Kontratua esleituko da prozedura irekiaren bidez SPKLren 156. artikulutik 158. artikulura aurreikusitakoaren arabera.

3. KONTRATUAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA ETA ERAGINKORTASUNA

Kontratu honen prestaketa dokumentazioan justifikatuta daude kontratuaren bidez bete nahi diren erakunde helburuak, behar administratiboen izaera eta hedapena, helburuaren egokitasuna eta helburuak betetzeko edukia, eta kontuan hartu diren mota guztietako baldintzak.

4. KONTRATUAREN GAIA

Kontratu honen helburua Hondarribiko hainbat kale asfaltatzeko eta urbanizazio lan osagarriak egiteko proiektuaren idazketa eta obren zuzendaritza fakultatiboa egitea da, hori guztia aurrekontuaren eta baldintza teknikoen pleguan ezarritako baldintza teknikoen arabera.

CPV: 7120000-2 Arkitektura, Ingeniaritza eta planifikazio zerbitzuak.

Efizientzia eta eraginkortasunagatik kontratu honen helburua den prestazioa ez da multzotan banatzen.

5. KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Kalkulatutako kontratuaren balio zenbatetsia SPKLren 101 artikuluan zehaztutako moduan kalkulatuta, **121.452,37 €** da.

6. OINARRIZKO LIZITAZIO AURREKONTUA

Kontratazio organoak kontratuaren arabera konprometitu ahal duen lizitazioaren oinarrizko aurrekontua gastuaren gehieneko muga moduan, sartuta Balio Erantsiaren Zerga partida independentean azalduta, SPKLren 100. Artikuluan azaldutakoaren arabera, **121.452,37 euro** gehi %21eko BEZaren **25.505,00 euro** dira.

SPKLren 100.2 artikuluen baitan, hurrengo moduan banatzen da aipatutako aurrekontua:

Valor del contrato

Precio	IVA	Coste ejec
121.452,37	25.505,00	146.957,37

	%	Precio	IVA	Coste ejec
Costes laborales:	50,00%	60.726,19	12.752,50	73.478,69
Otros gastos:	16,00%	19.432,38	4.080,80	23.513,18
Costes Directos:	15,00%	18.217,86	3.825,75	22.043,61
Gastos indirectos:	13,00%	15.788,81	3.315,65	19.104,46
Beneficio industrial:	6,00%	7.287,14	1.530,30	8.817,44
	100,00%	121.452 €	25.505 €	146.957 €

Lan-kostuak kalkulatzeko, Gipuzkoako eraikuntzaren eta herri-lanen sektoreko hitzarmen kolektiboa (20000455011981 kodea) eta ingeniari-entresen eta ikasketa teknikoaren bulegoaren sektoreko XIX. Hitzarmen kolektiboa (99002755011981 hitzarmen-kodea) hartu dira erreferentzia gisa, bakoitzari dagokion eremuan.

Lizitatuak zenbateko hori hobetu ahal izango dute beherantz haien eskaintzetan, zenbateko zehatz eta konkretu bat esleituz.

SPKLren 139.4 artikuluan zehaztutakoaren arabera, ulertuko da lizitatuak egiten dituzten proposamenetan sartuta daudela, eragin guztietarako, kontrataren prezioez gain, kontzeptu horiek zergapetzen dituzten mota guztietako zergak. BEZak bereizita agertu beharko du eskaintza guztietan, adierazita kontratuari aplikatu ahal zaizkion tasa eta zenbatekoa hura arautzen duen araudiaren arabera.

7. KREDITUA IZATEA

Badago kreditu nahiko kontratu honen lizitazioaren oinarriko aurrekontuko gastua ordaintzeko 0103.601.01.153.20. aurrekontu aplikazioaren kontura.

8. KONTRATUAREN PREZIOA ORDAINTZEA

Kontratuaren prezioaren ordainketa egingo da kontratazio organoak dagokion kobraketa-dokumentua aurkeztu eta onzat emandakoan, ondoren zehaztutako eran:

- Oinarriko proiektua Udaren Zerbitzu Teknikoek entregatu eta onzat ematen dutenean ordainduko da. Kontratuaren zenbateko osoaren % 15,99 izango da.
- Egikaritze-proiektua proiektua onartzean ordainduko da, eta kontratuaren zenbateko osoaren % 34,53 izango da.
- Zuzendaritza tekniko hilerokoetan ordainduko da, fase bakoitzean obra gauzatzeko aurreikusitako hilabetei dagokienez. Obra-zuzendaritza kontratuaren gutzizko zenbatekoaren % 49,48 izango da.

* Obrak gehiegi neurtzeagatik likidatzen badira, horien zuzendaritzak ez du zerbitzu-saririk sortuko.

Administrazioak ordainduko du prezioa, emandako zerbitzuen kontratuan ezarritakoarekin bat datozela egiaztatzen duten agiriak onartu eta hurrengo hogeita hamar egunetan, beti faktura aipatutako epean beharrezkoa den denboran eta moduan aurkeztu badu.

Enpresa esleipendunak fakturak* <Ef4ktur> formatuan bidaliko dizkio Hondarribiko Udalari Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez; egoitza elektronikoa eskura dago Hondarribiko Udalaren Webgunean: , **UDALGIDA eFAKTURAZIOA**.

Unitate organikoetako **DIR3** Kodeak hauek dira:

Organo kudeatzailea: L01200369

Izapidetzen duen unitatea: L01200369

Kontabilitate bulegoa: L01200369

(*) Fakturaren kontratu Zk. eremuan erreferentzia hau agertu behar da: 2020K1150008.

Aurkeztutako fakturari eska daitekeen baldintzaren bat falta bazaio, hori zuzentzeko eskatuko da, eta zuzendu arte ez da kontatzen hasiko jarritako epea.

Ordainketa lau hilabete baino gehiago atzeratzen bada, kontratistak, kasua bada, kontratuaren betetzea eten ahal izango du, eta Administrazioari hilabete bat lehenago egoera hori jakinaraziko dio, etete horren ondoriozko eskubideak aitortuak izateko, Lege honetan ezarritako zehaztapenetan.

Administrazioa sei hilabete baino gehiago berandutuko balitz, kontratistak eskubidea izango du halaber, kontratua suntsitzeko eta horren ondorioz eragiten zaizkion kalteen ordaina jasotzeko.

9. PREZIOEN BERRIKUSPENA

Kontratu honetan ez dira prezioak berrikusiko.

10. BURUTZEKO EPEA

- **Egikaritze proiektua:**

- Egikaritze-proiektua idaztea: **4 hilabete gehienez**, kontratua formalizatzen denetik aurrera.
- Egikaritze-proiektuan sartzen dira Segurtasun eta Osasun Azterlana, Kalitatea Kontrolatzeko Programa eta Hondakinen Kudeaketa.

- **Zuzendaritza fakultatiboa:**

Epea obrak guztiz amaitzeko beharrezkoa dena izango da ezarritakoa, eta **2 urtekoa** izango dela estimatzen da (etenaldiko hilabeteak barne).

Gehiegizko neurketagatik obren likidazioa badago, horien zuzendaritzak EZ du zerbitzu-saririk sortuko

11. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Lanen zuzendaritza Udal Arkitekto tekniko andrearen ardura izango da. Honako betekizun hauek izango ditu:

- Baldintza Teknikoen Pleguak eta kontratuan edo xedapen ofizialetan jasotako gainerako baldintzak interpretatuko ditu.
- Kontratua egikaritzeko beharreko bitartekoak eta antolakuntza egon dadin eskatuko du, egindako eskaintzaren arabera betiere.
- Beharrezkoak diren aginduak ematea kontratuaren helburuak lortzeko, kontuan izanda gainera Alkatearen zuzendaritza eta ikuskapen goi eskumenak.
- Kontratazio organoari SPKLren 203.2.b) eta 205 artikuluekin bat etorritik sartzea komeni diren aldaketak proposatzea.
- Egindako lanei dagozkien fakturei oniritzia emango die, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako epeetan.
- Kontratua garatzen den bitartean sortzen diren gorabehera guztiak tramitatuko ditu.
- Lanak behar bezala aurrera eramateko eta ikuskatzeko beharrezkotzat hartzen diren bilera guztiak egingo ditu; haietara nahitaez joan beharko dute enpresa esleipendunaren ordezkariak eta kontratuaren egikaritzean parte hartzen duten teknikariak.

12. LANEN JABETASUNA

SPKLren 308.1 artikuluetan zehaztutakoaren arabera, kontratazio honen helburu diren zerbitzuen emaitzaren jabetza, osorik edo bere edozein fasetan, Hondarribiko Udalarena bakarrik izango da. Dena den, eta lagapena baztertuta ere, kontratazio organoak dagokion produktua erabiltzeko baimena eman ahal izango die betiere sektore publikoko erakundeei eta organismoei.

13. KONTRATAZIO ORGANOA

Kontuan izanda SPKLren 61 artikulua eta bigarren xedapen gehigarria, kontratazio organoa Alkatea da.

14. KONTRATATZAILEAREN PROFILA

SPKLren 63 artikulua betez, kontratazio honen iragarkia Hondarribiko Udalaren kontratatzailearen Profilean argitaratuko da eta horren bidez kontratu honi buruzko informazioa emango da.

Interesa duten guztiak profil horretan sartu ahal izango dira honako helbide honen bidez:

<http://www.hondarribia.eus/es/perfil-contratante>

II. LIZITAZIOA ETA ESLEIPENA

15. GAITASUNA ETA KAUDIMENA.

15.1 Gaitasuna

SPKLren 65.1 artikuluan zehaztutakoaren arabera, bakarrik kontratatu ahal izango dute sektore publikoarekin pertsona natural edo juridikoek, espainiarrak edo atzerritarrak izan, SPKLren 71 artikuluan aipatutako kontratatzeke debekurik ez badute eta haien kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta teknikoa edo profesionala egiaztatzen badute edo, exijitu daitekeen kasuetan behar bezala sailkatuta badaude.

Era berean, hala badagokio, kontratuaren xedeari laguntzeko prestazioak emateko eska daitekeen gaikuntza profesionala edo enpresa gaikuntza izango dute kontratistek, SPKLren 65.2 artikulua dioen moduan.

SPKLren 66.1 artikuluan zehaztutakoaren arabera, pertsona juridikoak kontratuen esleipendun izan daitezke, baldin eta kontratuaren prestazioak, dagozkion estatutuen edo sortze arauen arabera, kontratu horrek bere dituen helburu, alderdi edo jarduera esparruaren barnean daudenean.

Europar Batasuneko Enpresen kasuan edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten Estatuen kasuan eta Europar Batasuneko Estatuetakoa ez diren enpresen kasuan beteko da SPKLren 67 eta 68 artikuluetan ezarritakoa.

Eragotzi gabe Kontratazio Mahaiaren eskumenak kolisio azarnak daudenean, SPKLren 69.1 artikulua arabera sektore publikoarekin kontratatu ahal izango dute hartarako aldi baterako eratzen diren enpresaburuen elkarteak, eta ez da beharrezkoa izango haiek eskritura publikoan formalizatzea kontratuaren esleipena haien alde egin arte.

Aldi baterako enpresa elkarteetan elkartuta aurkezten diren enpresaburuek solidarioki erantzun beharko dute eta elkarteko ordezkari edo ahaldun bat izendatuko dute. Hark ahalmen nahiko izango du kontratuaren ondoriozko eskubideak erabiltzeko eta betebeharrak betetzeko kontratua iraungi arte, eragotzi gabe eman daitezkeen ahalorde mankomunatuak kopuru handiko kobraketak eta ordainketak egiteko, SPKLren 69.3 artikulua dioen moduan.

Aldi Baterako Enpresa Elkartea eratuz lehiatu nahi duten enpresaburuek elkartea osatzen dutenen izenak eta egoerak adierazi beharko dituzte, baita bakoitzaren partaidetza, eta azaldu beharko dute aldi baterako elkartea modu formalean osatzeko konpromisoa hartzen dutela, kontratuaren esleipendunak badira. SPKLren 69.4 artikulua dioen moduan, aldi baterako enpresa elkartearen iraupena bat etorriko da, gutxienez, kontratuaren iraupenarekin hura bukatu arte.

15.2. Kaudimena

Enpresaburuek egiaztatu beharko dute badituztela plegu honetako 23 klausulan zehaztutako kaudimen ekonomiko eta finantzario eta profesional edo teknikoan gutxieneko baldintzak, bat etorritik SPKLren 86, 87 eta 90 artikuluetan aurreikusitakoa..

Beharreko kaudimena frogatzeko, enpresaburuak beste erakunde batzuetara jo dezake haien kaudimena eta baliabideak erabiltzeko, edozein dela ere haiekiko duen harreman juridikoa. Nolanahi ere, kasu horietan kaudimen eta baliabide horiek kontratua egikaritzen den denbora guztian egiazki erabil ditzakeela frogatu behar du, eta gainera beste erakunde horrek ez du kontratatze inolako debekurik izan behar

Baldintza beretan, aldi baterako elkartetan elkartuta aurkezten diren enpresaburuek aldi baterako elkartekoak ez diren beste enpresetara jo dezakete haien gaitasunak erabili ahal izateko.

Horretarako, beste erakunde batzuen gaitasunak erabili nahi dituen enpresak erakunde horien konpromisoa aurkeztu behar du idatziz, baliabide horiek egiazki erabili ahal izango dituela frogatzeko; SPKLren 150. artikulua xedaturikoaren arabera eskaintza hoberena aurkeztu duen lizitatzailerak horretarako eskaera jasotakoan aurkeztuko du konpromiso hori.

Enpresa kontratistak hitzematzen du kontratua burutzeko baliabide pertsonal eta material nahiko atxikiko dituela. Dedikazio nahikoa edo kontratua aurrera eramateko baliabide pertsonal edo material aski jartzeko konpromiso hori funtsezko betebeharra izango da kontratua bertan behera uzteko edo kontratuaren zati bat ez betetzeagatik edo hala badagokio, gaizki betetzeagatik zigorrak jartzeko arrazoitzat hartzeko ondorioetarako.

16. ESLEITZEKO IRIZPIDEAK ETA BERDINKETA HAUSTEA

Puntuazioa guztira: 100 Puntu (A eta B atalei dagozkien taldeen haztapenen batuketara).

A.- FORMULAK APLIKATUZ ERA ZUZENEAN BALIOZTATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK: (55 PUNTU)

A.1. ESKAINTZA EKONOMIKOA (40 PUNTU)

Gehieneko puntuazioa: 40,00 puntu

$$P = 40 \times \frac{\text{Eskaintza ekonomikoa (Ee)}}{\text{Egindako eskaintza (Es)}}$$

P-. Lizitatzailleak lortutako puntuazioa

Prezioa beherantz lizitazio oinarriari dagokionean, baja neurrigabea edo ausartegia dela antzemateko mugak kontuan harturik, HAKLA Oren 85. artikulua jasotako parametro objektiboen arabera.

A.2. EPEA HOBETZEA (15 puntu)

Gehienezko puntuazioa: 15,00 puntu

Kontratuaren agiri honetako 9. puntuan ezarritako epeak 6 aste arte hobetu ahal izango dira.

2,5 puntu emango dira epea 15 puntu gehienez murriztu den aste bakoitzeko.

Balorazioa egiteko, hilabete bat 4 astez osatuta dagoela joko da.

B.- BALIO-IRITZI BATEAN OINARRITUTA APLIKATU BEHARREKO IRIZPIDEAK: PROPOSAMEN TEKNIKOA (45 puntu)

Kontuan hartu behar da azpiirizpide hauek handian balora daitekeela administrazioarentzako proposamen teknikorik onena:

Obraren xede den beharren programa justifikatu beharko da, eta azpi-irizpide hauek baloratuko dira:

B.1. Ingurunearen txosten analitiko bat (gehieneko luzapena 2 DIN A4 bi aldeetatik): (8 PUNTU)

Inguruari, puntu gatazkatsuei (trafikoagatik, irisgarritasunagatik edo beste edozein arrazoiengatik) eta abarri buruzko txosten labur bat aurkeztuko da.

Oharra: ez da lizitazioan parte hartzea zailtzen duen aurreproiektua; helburua lizitatzailleak ingurunearen gutxieneko ezagutza izatea da.

B.2. Lan-proposamena (gehienez 10 DIN A4 luzapena bi aldeetatik a, b eta c puntuetarako; 5 DIN A3 alde batetik d punturako): (20 PUNTU)

a. Memoria: honako hauek labur garatuko dira:

- Kaleko jarduketak, metodologia eta gauzatzeko modua.
- Eraikuntza-ezaugarri garrantzitsuenak, etorkizuneko kalteak murrizteko azterketa bereziarekin.
- Irisgarritasun-helburuak lortzea.

- Irudia eta kalitate arkitektonikoa kontratuaren helburura egokitzea, soiltasun- eta ekonomia-irizpideak kontuan hartuta.

b. Lan-programa: obraren plangintza, obra-zuzendaritzakoak barne. Obra gauzatzeko faseak, etab.

c. Obraren estimazio ekonomiko justifikatua

d. Dokumentazio grafikoa, eskalan: solairuak, altxaerak, sekzioak, eskemak eta puntu garrantzitsuenen oinarritzko krokisak.

B.3. talde teknikoa eta proposatutako lantaldearen gaitasun profesionala, haren esperientzia teknikoa urbanizazio-proiektuak idazten

Laguntza teknikora esleitutako teknikarien curriculuma erantsiko da, teknikari bakoitzak duen titulua eta titulu hori lortu den urtea adierazita, bai eta egin dituzten lan esanguratsuenen zerrenda ere:

(13 PUNTU)

B.4. ingurumen- eta gizarte-irizpideak sartzeari (gehienez 1 DIN A4 luzapena bi aldeetatik):
(4 PUNTU)

Esleitzeko irizpide hauek aplikatuta berdinketa badago bi eskaintzaren edo gehiagoren artean, berdinketa ebatziko da SPKLren 147.2 artikulua araberaren irizpide sozialak aplikatuta hurrenkeran, eskaintzak aurkezteko epearen amaieran.

Aurretik aipatutako artikulua betez, berdinketa hausteko irizpideak egiaztatzeko dokumentazioa berdinketa gertatzen den unean aurkeztuko dute lizitatzailerak, eta ez aldez aurretik.

17. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

SPKLren 139 artikulua araberaren, lizitazioa arautzen duten pleguetan eta dokumentazioan xedatutakoari egokitu beharko zaizkio interesdunen proposamenak, eta proposamen horiek aurkezteak esan nahi du enpresaburuak baldintzarik gabe onartzen duela klausula edo baldintza horien guztien edukia, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe, eta kontratazio mahaiari eta organoari baimena ematen diela, beharrezkoa bada, Sektore Publikoko Lizitatzailerak eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko kide den Estatu bateko operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan jasotako datuak kontsultatzeko.

Aldaerak ez dira onartzen.

Proposamenak isilpekoak izango dira eta haiek iritsi arte izaera hori bermatuko duten baliabideak ezarriko dira.

Lizitatzailerak bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu. Era berean, ezin izango du proposamenik aurkeztu beste batzuekin aldi baterako elkarte eratuz, lehenago bakarka aurkeztu badu, edo aldi bateko elkarte batean baino gehiagotan egon.

Arau horiek betetzen ez badira, berak sinaturiko proposamen guztiak ezetsi egingo dira.

17.1. Pleguak eta beste dokumentazio osagarria eskura izatea

Pleguak eta gainerako dokumentazio osagarria Udalaren kontratatzailearen profilaren bidez eskuratuko dira baliabide elektronikoen; sarbidea libre, zuzenekoa, osoa eta doan izango da, eta lizitazio iragarkia argitaratzen den egunetik aurrera egingo da.

17.2. Informazio gehigarria

Kontratazio organoak lizitazio prozeduran interesa duten guztiei emango die, eskaintzak aurkezteko jarritako epea bukatu baino 6 egun lehenago beranduenez, pleguei eta gainerako dokumentazio osagarriari buruz eskatzen dioten informazio gehigarria, baldin eta proposamenak aurkezteko epea baino gutxienez 12 egun lehenago eskatu badute.

Erantzunak lotesleak izango dira eta kontratatzailearen profilean argitaratuko dira.

17.3. Isilekotasuna

SPKLren 133. artikulua araberak Udalak ez du enpresaburuek eskaintza aurkezterakoan isileko izendatutako informazioa hedatuko.

Konfidentzial izaera horrek eragina du, besteak beste, sekretu tekniko eta komertzialetan, eskaintzen alderdi konfidentzialetan eta beste edozein informazioetan haien edukia lehia faltsutzeko erabili badaiteke, bai lizitazio prozedura honetan bai ondorengo beste batzuetan.

Kontratazio organoaren, eta haren mendeko zerbitzuen konfidentzialtasun betebeharra ezin izango da zabaldu esleipendunaren eskaintzaren eduki osora.

Era berean, konfidentzialtasun betebeharrak ezin izango du galarazi egindako kontratuaren konfidentzialak ez diren zatien hedapen publikoa, betiere errespetatuz Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak xedaturikoa.

Era berean lizitatzailerak isilekotasuna gorde beharko du kontratuaren prestazioa burutzerakoan eskura duten informazioari buruz.

17.4. Agiriak zuzentzea

Parte hartzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpenak zuzendu egin beharko dituzte lizitatzailerak, kontratazio organoak edo kontratazio mahaiak eskatzen badie, halakorik ez bada aurkeztu edo aurkeztutakoa ez badago behar bezala beteta.

Era berean, esleipendun izateko proposatu denak, kontratua esleitu aurretik zuzendu ahal izango du parte hartzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko dokumenturen bat ez badu aurkeztu edo osorik ez badago.

Bi kasu horietan lizitatzailerari hiru eguneko epea emango zaio, okerra zuzentzeko eskaera jasotzen duen egunaren hurrengotik aurrera kontatuta.

Horretarako eskaera posta elektronikoaren bidez egingo da enpresa lizitatzailleak adierazitako helbide elektronikoan, plegu honetako 15. Klausulan ezarritakoaren baitan.

Eskatutako epe horretan ez badu zuzentzen, kontratazio organoak edo kontratazio mahaiak ulertuko du lizitatzailleak berak egindako eskaintzari uko egin diola.

17.5. Lekua eta epea

Lizitatzailleek aurkeztu beharko dituzte eskaintzak hamabost egun naturaleko epean iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratzen denetik baliabide hauetakoren bat erabiliz.

- a) **Aurrez aurre** Hondarribiko Udalean, (Pampinot kalea, 12-14, 3. 20280 Hondarribia) lanegunetan eta jendaurreko ordutegian.
- b) **Posta egiaztatuaz**, goian adierazitako helbidera bidalita (Espediente zenbakia: 2020K1150008); igorleak zuritu beharko du bidalketaren data Posta Bulegoan eta kontratazio organoari adieraziko dio eskaintza bidali fuela FAX bidez (943 111252) edo posta elektronikoaren bidez (kontratazioa@hondarribia.eus) egun horretan bertan. Bi baldintza horiek ez badira betetzen ez da proposamena onartuko proposamenak aurkezteko epea bukatu eta gero jasotzen bada. Eta, komunikazioa jasota hamar egun natural pasatzen badira proposamena jaso gabe, ez da kasu bakarrean ere onartuko.

Eskaintzak aurkezteko epea epe hori bukatzen den eguneko 13:30ean bukatuko da.

Epe hori larunbatean, igandean edo jaiegunean bukatzen bada, justu hurrengo astelehenera edo jaieguna bada lehen lanegunera luzatuko da automatikoki.

18. PROPOSAMENEN EDUKIA

Lizitatzailleak proposamena lizitatzailleak edo bera ordezkatzeko duen pertsonak itxi eta sinatutako gutun-azalean aurkeztuko du, eta haietako bakoitzean duen edukia eta lizitatzaillearen izena azalduko ditu. Gutun-azal bakoitzaren barruan, orri batean bereiz adieraziko da edukia, zenbakiz ordenatua.

Espainian kontratatuko duten enpresa atzeritarrek dokumentazioa modu ofizialean gatzelaniara edo Euskarara itzulita aurkeztuko dute.

Lizitatzailleek haien proposamenak HIRU GUTUN-AZAL ITXITAN AURKEZTUKO DITUZTE; gutun-azalek izenburu hau izango dute: “HONDARRIBIKO ZENBAIT KALE ASFALTATZEKO KANPAINAREN EXEKUZIO PROIEKTUAREN IDAZKETA, LAN OSAGARRIAK ETA OBRA ZUZENDARITZA IDAZTEKO KONTRATUA ESLEITZEKO PROZEDURA IREKIAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA”.

18.1. A GUTUN-AZALA, “Dokumentazio Administrazioa” azpi-izenekoa; hau izango du:

1. Proposamena aurkezten duen pertsonaren NAN, bere izenean izan edo beste pertsona fisiko edo juridiko baten izenean izan.

2. **Ardurapeko adierazpena Kontratazioaren Europar Dokumentu Bakar eredua (DEUC);** dokumentua lizitatzailleak sinatua izango da eta hor adieraziko da beste gai batzuen artean:

- Sozietatea balio duen eran eratuta dagoela eta bere xede sozialaren arabera lizitaziora aurkez daitekeela, eta adierazpena sinatzen duenak beharrezko ordezkari izaera duela proposamena sinatzeko.

- Betetzen dituela pleguan ezartzen diren baldintzetan eskatzen diren kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala.

- Ez duela ez berez eta ez hedapenez SPKLren 71.3 artikulua aplikatzearen ondorioz kontratatzeko debekurik.

- Enpresaburuak jotzen duenean beste zenbait enpresaren kaudimen eta baliabideetara, SPKLren 75. artikuluekin bat etorritik, haietako bakoitzak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du eta hor agertuko da kasu hauetarako egokia den informazioa kontratazioaren europar agiri bakarraren galdetegi normalizatuaren arabera.

- Enpresak beste zenbait erakunderen gaitasunak erabiltzen dituztenean idatziz erakunde horien konpromisoa aurkeztuko du frogatzeko badituela baliabide horiek.

Enpresa lizitatzailleek bakarrik galdetegi honen zatiak bete beharko dituzte: I, II, III, IV zatien "a" atala eta VI zatia. Horiek betetzeko jarraitu beharko ditu Estatuko Ondarearen Zuzendaritza Orokorren 2016ko apirilaren 6ko ebazpena (Ebazpenean argitaratu zen kontratazio publikoaren Zuzendaritza berriak aurreikusitako DEUC erabiltzeari buruz Administrazio Kontratazioko Aholku Batzordeak emandako gomendioa, 2016ko apirilaren 8ko EAOn argitaratua).

Aurreko atalek aipatzen dituzten kontratatzeko gaitasunari, kaudimenari eta debekurik ez izateari buruzko inguruabarrak eskaintzak aurkezteko azken datan bete behar dira eta kontratua burutzeko unean ere iraun behar dute.

Kontratazio organoak edo kontratazio mahaiak edozein unetan eskatu ahal izango dute dokumentuen bidez justifikatzeko erantzukizunpeko adierazpenean adierazitako baldintzak betetzen dituztela.

Enpresa lizitatzailleak gehienez ere 5 eguneko epean aurkeztuko du dokumentazioa, eskakizuna jasotzen duenetik aurrera kontatuta. Eskakizun hori ez bada jarritako epean behar bezala betetzen, ulertuko da lizitatzailleak bere eskaintza erretiratu egin duela eta prozeduratik kanpo geratuko da.

Dena dela, enpresaburua inskribatuta dagoenean Sektore Publikoko Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko kide den Estatu baten datu base nazionalen dagoenean, enpresaren espediente birtual moduan, eta horiek eskura daudenean aipatutako organoentzat, ez da aipatutako lekuetan inskribatuko datuen zuriak agiritik edo beste frogagiritik aurkeztu beharko. Dena dela, enpresaburua inskribatuta dagoenean Sektore Publikoko Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko kide den Estatu baten datu base nazionalen dagoenean, enpresaren espediente birtual moduan, agiriak modu elektronikoan gordetzeko

sistema moduan edo aurrekalifikazio sistema moduan, eta horiek eskura daudenean aipatutako organoentzat, ez da aipatutako lekuetan inskribatutako datuen zuriketa agiririk edo beste froga agiririk aurkeztu beharko.

3. Enpresa lizitatzailaren datuak eta helbide elektronikoa SPKLren 15. Xedapen Gehigarrian ezarritakoaren eraginetarako, baliabide elektronikoen bidez jakinarazteari buruzko gaian. II. Eranskina aurkeztuko da.

4. Aldi Baterako Enpresa Elkartea eratzeko konpromisoa, kasua bada. Honekin batera III. Eranskin moduan doan ereduarekin batera.

5. Enpresa Talde bateko kide dela dioen adierazpena, kasua bada. Honekin batera IV. Eranskin moduan doan ereduaren arabera.

6. Enpresa atzerritarrek haien gaitasuna SPKLren 67 eta 68 artikuluetan aurreikusitako moduan egiaztatu beharko dute.

18.2. B Gutun-azala, "Proposamen Teknikoa" azpтитulua duena.

B Gutun-azalak hauek izango ditu: plegu honetan ezarritakoaren baitan 16.B klausulan adierazitako dokumentazioa.

Ezin izango da inola ere B gutun-azal honetan C gutun-azal edo berezko agiririk sartu.

18.3. C GUTUN-AZALA, "Eskaintza Ekonomikoa eta automatikoki aplikatu beharreko irizpideekin baloratu beharreko dokumentazioa" azpi-izenburua duena, hau izango da:

Proposamen ekonomikoa plegu honetako I Eranskinean jasotako ereduaren arabera behar bezala dokumentatuta. Gutun-azal horretan sartuko dira eskaintza ekonomikoa eta automatikoki ebaluatu daitezkeen irizpideei buruzko beste dokumentazioa.

Eskaintza ekonomikoa letra argiz edo makinaz idatzia aurkeztuko da, eta baztertu egingo dira omisioak, akatsak edo urraketak dituztenak, kontratazio organoak eskaintza aintzat hartzeko funtsezkotzat hartzen duena argi eta garbi ikusten uzten ez badute.

Proposamen ekonomikoan partida berezi moduan agertuko da aplikatu behar den Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zenbatekoa.

C gutun-azal horretan inola ere ez dira sartuko B gutun-azalean sartu beharrekoak.

18.4. Erreferentzia teknikoak

Baldintza teknikoen pleguaren arabera beste zenbait agiri sartu behar direnean egiaztatzeko proposamenek betetzen dituztela eskatutako zehaztapen teknikoak, baina horiek ez badira baloratu behar, horiek aurkezteko derrigorrezkoa denean B gutun-azalean sartuko dira, eta bestelakoan C gutun-azalean.

19. KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio organoak eskaintzak baloratzekoak Kontratazio Mahaiaren laguntza izango du.

	Titularra	Ordezkoa
Presidentea	Alkatea	Bera ordezkatuz arituko den Udalkidea.
Mahaikideak	Udal Idazkaria	Bere ordezko funtzionarioa
	Kontu-hartzailea	Diru-zaina
	Kontratazio Administrazio Orokorreko Teknikaria	Bere ordezko funtzionarioa
Mahaiko Idazkaria	Idazkaritzako Administrazio Orokorreko Teknikaria	Idazkaritzako Administrazio Laguntzailea

20. PROPOSAMENAK IREKITZEA ETA AZTERTZEA

SPKLren 157.3 artikulua dioen moduan, proposamenak irekiko dira gehienez ere hogeita eguneko epean proposamenak aurkezteko epea amaitzen den datatik zenbatzen hasita.

Ulertuko da gehienezko epea bete dela ireki denean, epearen barruan, proposamena osatzen duten gutun-azaleko lehenengoa.

20.1. A Gutun-azala irekitzea

Kontratazio Mahaiak kalifikatu egingo ditu aurre baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa eta A gutun-azalean sartuta dagoen erantzukizunpeko adierazpena.

Mahaiak ikusten badu konpon daitezkeen akatsak daudela aurkeztutako dokumentazioan, hiru eguneko epea emango du lizitatuzaileak konpontzeko. Horretarako errekerimendua egingo da posta elektronikoaren bidez hartarako enpresa lizitatuzaileak adierazitako helbide elektronikoan.

Azkenik kontratazio mahaiak zehaztuko du lizitazioan zer enpresa onartu diren eta zer enpresa baztertu diren eta zergatik baztertu diren.

Kontratazio Mahaiaren aktak, aurre baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa kalifikatzen dutenak eta onartutako eta baztertutako eskaintzak jasotzen dituztenak, kontratatzailearen profilean argitaratuko dira, eta hark iragarki ohol moduan jotzeko du; dena dela komunikazioa edo jakinarazpena –egokia dena- bidaliko zaie, aldi berean, lizitatuzaileei.

20.2. B Gutun-azala irekitzea

Kontratazio mahaiak gehienez ere zazpi egunetan A gutun-azala irekitzen denetik onartutzat ematen diren eskaintzetako B Gutun/azala irekiko du plegu honetako 16. Klausulako B atalean jasotako irizpideen arabera haren edukia ebaluatzeko.

Hasierako deialdia mantentzen bada ere, edo hari aldaketak egiten bazaizkio ere, Kontratatzailearen Profilean argitaratuko dira.

Ekintza horri emango zaio hasiera Mahaiak proposamenen kalifikazioari buruz egindako berariazko azalpenarekin, eta azalpenean lizitazioarako onartuak, baztertuak, eta kasu horretan, baztertzeko arrazoiak emango ditu.

Baztertu egingo dira lizitazio prozeduratik B Gutun/azalean gero ebaluatuko den dokumentazioa *C Gutun/azala sartzen duten lizitatzailerak.

Egindako guztia beharrezko aktetan jasoko da, eta islatuko da prozeduraren emaitza eta izan diren gorabeherak.

20.3. C Gutun-azala irekitzea

Ekintza publikoan kontratazio organoaren Kontratatzailearen Profilean zehaztutako toki, egun eta orduan, kontratazio Mahaiak B gutun-azalaren edukia irekiko du. Onartutako lizitatzaileren **“Eskaintza Ekonomikoa eta automatikoki aplikatzekoak diren irizpideekin baloratu beharreko dokumentazioa”** eskaintza ekonomikoak irakurriz.

Gutun-azal horietan dagoen dokumentazioa baloratuko da plegu honen 16.A klausulan ezarritako esleipen irizpideen arabera.

Egindako guztia jasota geratuko da egokiak diren aktetan.

20.4. Eskaintzen balorazioa

Eskaintzak baloratzerakoan kontuan hartzen direnean prezioa ez diren beste zenbait irizpide, eta egiaztatzeko eskaintzek plegu teknikoko zehaztapenak betetzen dituztela, eskumena duen organoak eskatu ahal izango du, proposamena egin baino lehen, beharrezkoak ikusten dituen txosten tekniko guztiak. Kontratazio Mahaiak, era berean, eskatu ahal izango du kontratuaren helburuarekin lotutako alorretan ezagutza egiaztatuak dituzten teknikari edo adituen laguntza.

Laguntza hori kontratazio organoak baimenduko du eta berariaz islatu behar da espedientearen, aipatuta bilerara joan diren teknikari edo adituen identitateak, prestakuntza eta lan esperientzia.

20.5. Eskaintza baxuegiak

Esleipen proposamena egin baino lehen, Kontratazio Mahaiaren iritziz eskaintza bat bideraezina bada baxuegia delako kontuan izanda APKLAren 85 artikuluan ezarritako parametro objektiboak, SPKLren 149 artikuluan aurreikusitako prozedura tramitatuko da, eta hor egokia den zerbitzu teknikoaren aholkularitza eskatuko da.

Nolanahi ere, kontratazio organoek eskaintzak baztertu egingo dituzte baxuegiak direla egiaztatzen badute azpikontratazioari buruzko araudia urratzen dutelako edo ingurumen, gizarte edo lan alorretan, nazioan edo nazioartean, aplikagarri diren obligazioak betetzen ez dituztelako, indarrean dauden sektoreko hitzarmen kolektiboak ez betetzea barru hartuta.

Betiere ulertuko da justifikazioak ez duela lizitatzailerik proposaturiko prezioen edo kostuen maila txikia behar bezala adierazten justifikazio hori osatugabea denean edo hipotesi edo praktika ezegokietan oinarritzen denean ikuspegi tekniko, juridiko edo ekonomikotik begiratuta.

Ustez balio anormala duen enpresa kontratuaren esleipendun gertatzen bada, kontratazio organoa arduratuko da behar bezala, kontratatutako zerbitzuen kalitatea txikitu gabe, gauzatuko dela ziurtatzeaz.

21. PROPOSAMENAK AZTERTZEA, ESLEITZEKO PROPOSAMENA ETA PUBLIZITATEA

Kontratazio Mahaiak eskaintzak aztertuko ditu eta esleipen proposamena kontratazio organoari emango dio, haztatu ondoren esleipenduna hautatzeko aplikatu beharreko irizpideak eta tramitatu ondoren aurreikusitako prozedura uste bada puntuazio onena duen eskaintza anormala edo baxuegia dela.

Esleipen proposamenean agertuko dira antolatuta eskaintzak beharrezko hurrenkeran bakoitzari emandako puntuazioarekin eta kalitate-prezio lotura onena duen eskaintza identifikatuz.

Berdinketa izanez gero plegu honetako 16.klausulan aurreikusitakoaren arabera egingo da.

Esleipen proposamenak ez du eskubiderik sortzen Udalaren aurrean proposatutako lizitatzaileraren alde. Dena dela, kontratazio organoak ez badu kontratua egindako proposamenaren arabera esleitzen arrazoitu egin beharko du bere erabakia.

Kontratatzaileraren Profilean argitaratuko da zenbat lizitatzailerik hartu duten parte prozeduran eta haien nortasun datuak, kontratazio mahaiak egindako akta guztiak esleipen prozedurari buruz, eskaintza bakoitzari kasu bada balio judizioaren bidez zenbakarriak diren esleipen irizpideak aplikatuta egindako balorazioaren txostena, SPKLren 149.4 artikuluan aipatutako normaltasun eza egoeran dauden eskaintzei buruzko txostenak, eta kasu guztietan, kontratuaren esleipenaren ebazpena.

22. ESLEIPENAREN AURRETIK DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA

Kontratazio organoak esleipen proposamena egin ondoren, hark errekerimendua egingo dio eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzailerari SPKLren 145 artikuluan adierazitakoaren arabera hamar egun baliodunen epean errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, hark zuriaketa dokumentazioa aurkezteko jatorrizkoen edo kopia konpultsatuen bidez SPKLren 140 artikuluan aipatutako erantzukizunpeko adierazpenean islatutako egoerei buruz.

1º. Lizitatzaileraren nortasuna egiaztatzen duten agiriak:

- Lizitatzailerak pertsona juridikoa bada nortasuna egiaztatuko da eraketa edo aldaketa Eskrituraren bidez, kasu bada, Merkataritza Erregistroan inskribatuta izanik, baldintza hori

exijitu daitekeenean. Pertsona juridikoa ez izanik, aurkeztu beharko du eraketa dokumentua, estatutuak edo fundazio ekintza, eta hor agertu beharko dira haien jardura arautzen duten arauak, eta dokumentu horiek, kasua bada, beharrezko Erregistro Ofizialean inskribatuta egongo dira. () Pertsona juridikoak bakarrik izan ahal izango dira berezkoak dituzten estatutu edo fundazio arauen arabera jardueraren helburu, arrazoi edo eremuaren barruan dauden prestazioei buruzko kontratuen esleipendun, eta aurkeztutako dokumentazioan egiaztatuko da.

- Lizitatzailerak pertsona fisikoa bada Nortasun Agiri Nazionala, edo horren ordezko agiria aurkeztuta.

2. Eskaintza aurkezten duenak duen ordezkaritza egiaztatzen duten dokumentuak (beste pertsona fisiko edo juridikoren ordez aritzen bada).

3. Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren alorreko betebeharrak betetzea egunean duela, lehenago baldintza horiek egiaztatu ez.

4. EIZn, kontratuaren gaiaren epigrafean, alta eman diotela frogatzeko, lehiakideak alta-agiria aurkeztuko du, uneko ekitaldian hartua badu, edo EIZren azken ordainagiria beste egoeretan, eta bi kasuetan zerga horren matrikulan bakarrik hartu ez duela esaten duen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko du.

5. Kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoa, eskaintzak aurkezteko fasean egindako deklarazioaren arabera, dokumentazio hau aurkeztuta:

- Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa: Ekonomia eta finantza kaudimena laneko arriskuen kalte ordain aseguruaren bidez egiaztatu ahal izango da. Aseguru horren zenbatekoa ez da kontratuaren balio zenbatetsia baino txikiagoa izango eta indarrean egon behar du eskaintzak aurkezteko epea amaitu arte, eta gainera, berritzeko edo luzatzeko konpromisoa aurkeztuko da, haren estaldura kontratua egikaritzen den denbora guztian mantenduko dela bermatzeko. Ulertuko da lizitatzailerak edo hautagaiak baldintza hori bete duela bere eskaintzarekin batean aurkezten duenean, esleipendun suertatuz gero, eskatutako aseguru hori izenpetzeko konpromiso loteslea, eta konpromiso hori hamar laneguneko epean gauzatu beharko du.

- Kaudimen Teknikoa edo profesionala:

a) Gehienez ere azken hiru urteetan kontratuaren gaia eratzen duten egindako berdinak edo antzekoak diren zerbitzu edo lanen zerrenda, hor azalduta zenbatekoa, data eta hartzailea publikoa edo pribatua den. Kontratazio organoaren mendeko zerbitzuek errekeritzen diotenean egindako zerbitzuak edo lanak egiaztatuko dira eskumena duen organoak egindako edo ikusonetsitako egiaztagiriekin, hartzailea sektore publikoaren mendeko erakunde bat denean; hartzailea subjektu pribatu bat denean, subjektu horrek egindako egiaztagiri batekin edo, egiaztagiri hori ez badago, enpresaburuaren adierazpen batekin dituen prestazioa egin dela egiaztatzen duten dokumentuekin; kasua bada, eskumena duen agintaritzak zuzenean emango dizkio egiaztagiri horiek eskumena duen organoari.

* **Enpresa inskribatuta badago:** Sektore Publikoko Lizitatzailerak eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta dagoela dioten egiaztagiria, Eusko Jaurlaritzako ogasun eta

Herri Administrazioen Ministerioak edo Ogasun eta Herri Administrazioaren Sailak emana, egiaztatzen duena zerbitzuko kontratista bezala inskribatuta dagoela. Kasu horretan esleipendunak egiaztatuko ditu agiriekin beharrezko Erregistroan inskribatuta ez dauden plegu honetan exijitutako gaitasun eta kaudimen baldintzak. Edozein kasutan erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuko da hor dauden datuak indarrean daudela adierazten duena.

6. Enpresa atzeritarrek, kontratua Espainian gauzatu behar den kasuetan, aurkeztuko du adierazpen bat dioena edozein mailatako epaitegi eta auzitegien jurisdikziopean jartzen dela kontratuan zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabehera guztietarako, eta uko egiten diola, kasua bada, lizitatzaillearen izan daitekeen atzerriko jurisdikzio foruari.

7. Egiaztatzea behin betiko bermea jarri dela.

Egiaztagiria baliabide elektronikoak, informatikoak edo telematikoak erabiliz eman ahal izango dira.

Kontratazio mahaiak edo kasua bada kontratazio organoak egiaztatuko du esleipendun proposatu denak egiaztatu egiten duela agiriekin betetzen dituela exijitutako parte-hartze baldintzak eta egingo ditu ofizioz, ahal bada hartarako egokiak diren esku-hartzeak. Bestela eskatuko du egokia den dokumentazioa aurkeztea.

Aipatutako dokumentazioa aurkezteko errekerimendua egingo da baliabide elektronikoak erabilita eskaintzaren aurkezpenean lizitatzailleak izendatu duen posta elektronikoaren helbidearen bidez, eta plegu honetan 15. Klausulan adierazitako prozedura betez, aurreko guztia kontuan izanda SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoa.

Errekerimendua aipatutako epean ondo betetzen ez bada, ulertuko da lizitatzailleak kendu egin duela bere eskaintza eta exijituko zaio lizitazio oinarriaren aurrekontuaren %3 BEZ kenduta zigor bezala, eta efektibo egingo da lehenik behin betiko bermetik kenduta. Kasu horretan, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatzaileri, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkeran.

23. BEHIN BETIKO BERMEA

SPKLren 145 artikulua arabera eskaintza onena aurkeztzen duen enpresa lizitatzailleak eratu beharko du kontratazio organorako haiek eskaintako azken prezioaren 100eko 5eko bermea, kenduta Balio Erantsiaren gaineko Zerga.

Ikuspegi ekonomikotik eskaintza onuragarriena aurkeztu duen lizitatzailleak behin betiko bermea eratu duela egiaztatuko da esleipena baino lehen dokumentazioa aurkezteko emandako epean.

Behin betiko bermea eman ahal izango da SPKLren 108 artikuluan aurreikusitako moduren batean edo batzuetan.

Bermea eratu dela egiaztatu ahal izango da baliabide elektronikoaren bidez.

Ez bada baldintza hori betetzen berari inputatu ahal zaizkion arrazoiengatik, Administrazioak ez du esleipena horren alde egingo.

SPKLren 109.2 artikulua arabera kontratistari eska dakizkikeen zigorrak edo kalte ordainak behin betiko bermearen kontura gauzatzen direnean, kontratistak hura berrezarri edo handitu beharko du, dagokion zenbatekoan, hamabost eguneko epean, zigorrak edo kalte ordainak gauzatzen diren egunetik kontatzen hasita, bestela kontratua suntsitu ahal izango da.

SPKLren 110 artikuluan aipatutako kontzeptuetarako izango da behin betiko bermea..

24. KONTRATUA EZ ESLEITZEKO EDO EGITEKO ERABAKIA ETA ESLEIPEN PROZEDURA BERTAN BEHERA UZTEA

Kontratazio organoak atzera egiten duenean esleipen prozeduran edo erabakitzen duenean kontratua ez esleitzea edo egitea egokia den deialdia egin eta gero, esleitzaileei jakinaraziko die.

Kontratazio organoak adostu ahal izango du kontratua esleitzea edo egitea edo prozeduran atzera egitea formalizatu baino lehen, eta konpentsatu egin beharko dira lizitatzailak egindako gastuengatik, kontuan izanda Administrazioaren ondare erantzukizuna kalkulatzeko erabilitako balorazio irizpideak, administrazio prozedura erkidearen tramiteen bidez.

Espedientean behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiengatik soilik erabaki ahal izango da kontratua ez esleitzea edo egitea, eta kasu horretan, ezin izango da helburu hori duen beste lizitazio bat sustatu erabakia oinarritzeko emandako arrazoiak dauden bitartean.

Prozeduran atzera egiteko beharrezkoa da kontratuaren prestaketarako edo esleipen prozedurarako arauetan arau-hauste konponezina izatea, eta espedientean atzera egiteko arrazoi hori zuritu egin beharko da. Bertan behera uztea ez de eragozpen izango berehala beste lizitazio prozedura bat hasteko.

25. ONDORENGOTZA PROZEDURAN

Prozedura tramitatzen ari den bitartean eta kontratua formalizatu baino lehen enpresa ondarearen edo jardueraren adar baten bat egite, zatitze edo eskualdaketa gertatzen bada, prozeduran enpresa lizitatzailaren edo hautagaiaren ordezkia sozietate xurgatzailea, zatiketaren onuraduna edo enpresa ondarea edo jarduera adarra hartzen duena izango da, betiere gaitasun baldintzak baditu eta kontratatze debekurik ez badu eta kaudimena eta sailkapena egiaztatzen baditu esleipen prozeduran parte hartzeko klausula administratibo berezi hauen pleguan eskatutako baldintzetan.

26. ESLEITZEA ETA JAKINARAZTEA

Behin betiko bermea eratu ondoren eta plegu honetako 23 klausulan zehaztutako dokumentazioa aurkeztu ondoren, kasua bada lehenago Kontu-hartzaileak gastuaren konpromisoa fiskalizatu ondoren, kontratazio organoak esleitu egingo du kontratua esleipendun proposatutako lizitatzailaren alde dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baliodunetan, eta esleitu ondoren formalizatu egingo da SPKLren 153.3 artikulua arabera.

SPKLren 151.1 artikularen arabera esleipenaren ebazpen arrazoitua lizitatzaleei eta hautagaiei jakinaraziko zaie eta aldi berean kontratatzailearen profilean argitaratuko da hamabost eguneko epean. Jakinarazpena baliabide elektronikoaren bidez egingo da SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

Esleipen prozeduran interesa dutenek esleipen erabakiaren aurka ondo oinarritutako errekurtsua jarri ahal izateko beharrezko informazioa eduki beharko dute jakinarazpenak eta publizitateak.

Kontratuaren esleipena egingo da proposamenak irekita hurrengo egunetik zenbatzen hasita gehienez egutegiko bi hilabetetan. Ez bada zehaztutako epean akordiorik egiten lizitatzaleek eskubidea izango dute haien eskaintza kentzeko.

27. KONTRATUA FORMALIZATZEA

SPKLren 153.1 artikularen arabera kontratua dokumentu administratiboan formalizatu beharko da; agiri hori titulu nahikoa izango da edozein erregistro publikotan sartzeko. Dena dela, kontratistak eskatu ahal izango du kontratua eskritura publikoan jasotzea, eta bere kontura joango dira gastuak. Ezin izango da inola ere kontratua formalizatzen den agirian esleitzeko baldintzak aldatzen dituen klausularik sartu.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 44. artikularen arabera kontratazio-arloko errekurtsu berezia jar dakiok kontratuari, eta, beraz, kontratua ezin izango da formalizatu esleipenaren jakinarazpena lizitatzaleei eta hautagaiei bidali eta hamabost egun baliadun igaro baino lehen. Kontratua formalizatu ondoren, Udaleko kontratatzailearen profilean argitaratuko da. Formalizatu ondoren, Udaleko kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua ez bada jarritako epean formalizatzen, oinarritzko lizitazio aurrekontuaren % 3 eskatuko zaio zigor kontzeptuan; diru hori behin betiko bermearen aurka kobratuko da lehenengo, hura jarri bada, kontratazeko debekutzat hartzeko aukeraren kalterik gabe.

Kasu horretan, kontratua hurrengo lizitatzaleari esleituko zaio eskaintzak sailkatuta geratu diren segidan, lehendik aurreko baldintzak bete direla egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztuta, zehaztutako epeetan.

Kontratua ez formalizatzeko arrazoiak Administrazioari lepora badakizkio, kontratistari kalte ordaina emango zaio berandutzeak eragin dakizkiokeen kalte eta galerengatik.

Formalizatu aurretik ezin izango da kontratua gauzatzen hasi.

Esleipenduna EAE bada, horren ordezkariak aurkeztu beharko ditu kontratazio organoaren aurrean eratu dela esaten duen eskritura publikoa, eman zaion IFK eta ahalorde nahiko duen bere ordezkariaren izendapena.

28. KONTRATISTAREN BETEKIZUNAK

Kontratu honen erregimen juridikoaren ondoriozko betebeharrak orokorrean gain, kontratistaren betebeharrak dira hauek:

28.1. Kontratatzeko gaitasuna

Kontratistak bermatuko du kontratua indarrean dagoen aldian Herri Administrazioekin kontratatze gaitasuna duela, eta hamabost eguneko epean gertatu diren ezgaitasun eta bateraezintasunak azalduko ditu.

28.2. Kontratuaren arduraduna Administrazioaren aurrean

Proiektuaren idazketaren arduraduna lan taldearen ordezkaria izango da Udalak izendatutako gerentziaren aurrean eta ondorioz, bien arteko komunikazio bide formala izango da.

Esleipendunak izango da arduradun bakarria ondoko eginkizunei dagokienez:

- Indarrean dagoen legediak ezarritako betebeharrak guztiak bete beharko ditu.
- Bere eginkizunak burutzerakoan agiri guztiak ikuskatu eta izapidetu beharko ditu.
- Esleipendunak, proiektuan aurkeztutakoa jarraitu eta bete beharko du. Prozesuaren garapenerako plangintzak aldatetaren bat izango balu, aldez aurretik, Hondarribiko Udalak berau berrikusteko aukera izango du.

28.3 Kontratatzeari buruzko betebeharrak honako alorreko: fiskalitatea, ingurumenaren babesa, enpleguaren babesa, genero berdintasuna, lan baldintzak, indarrean dauden xedapenetatik etorritako betebeharrak, eta baita ezintasunak dituzten pertsonen kopuru edo ehuneko zehatz bat kontratatzeke.

Kontratistak indarrean dagoen araudia bete beharko du fiskalitateari, genero berdintasunari, ezintasunak dituzten pertsonak gizartratzearen, ingurumena babesteari, enpleguari eta lan baldintzei eta ezintasunak dituzten pertsonen ehuneko zehatz bat kontratatzeari buruzko alorrean.

Enpresa esleipendunak bere eginkizunak betetzeko kontratatzen duen pertsonala bakarrik bere mendeakoa izango da, eta kontratua amaitzean ezin izango dira inolako ere lanak egin dituzten pertsonak organo kontratatzailearen pertsonal moduan kontsolidatu.

28.4 Azpikontratazioa

Kontratu honetan ez da azpikontrataziorik egingo.

28.5 Kontratistari eska dakizkikeen betebeharrak, gastuak eta zergak

Kontratistaren kontura joango dira gastuak eta zergak, kontratua formalizatzeari buruzko gastuak, eskritura publikoan jasotzen bada. Era berean, kontratua betetzeko enpresak egin beharreko gastu guztiak ordainduko ditu, adibidez orokorrak, finantzarioak, aseguruari buruzkoak, garraio eta joan-etorriari buruzkoak, materialak, instalazioei buruzkoak, haren kontura den pertsonalaren ordainsariei buruzkoak, tasak eta zerga mota guztiak, BEZ, jarduera egiteagatik beharrezkoa den zerga baldin

badago eta kontratuaren indarraldia dagoen artean eta kontratua burutzearen ondorioz izan ahal litzatekeen beste edozein, ondorioz ezin izanik partida independente moduan erreperkutitu.

28.6. Baimenak, lizentziak eta onespak kudeatzeari buruzko betebeharrak

Kontratatik, salbu eta kontratazio organoak berak kudeatzea erabakitzen badu eta hórrela esaten badio berariaz, kudeatu beharko ditu udal ordenantzetan eta zerbitzua hasteko eta egiteko beharrezkoak diren beste edozein erakunde publiko edo pribaturen arauetan ezarritako baimen, lizentzia eta onespak, eta horretarako Administrazioari beharrezkoak diren agiriak eskatuko dizkio.

28.7. Gardentasun betebeharrak

Esleipendunak Udalari beharrezkoak diren datu eta agiri guztiak eman beharko dizkio abenduaren 9ko 19/2013 Legeko III Atalak (gardentasunari, informazio publikorako eskuragarritasunari eta gobernu onari buruzkoak) eta apirilaren 7ko Eusko Jaurlaritzaren 2/2016 Legeak (Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak) duen 49,4 artikulua dituzten baldintzak betetzeko.

Eskatutako datuak edo agiriak emango dira lehen aipatutako lege xedapenak betetzeko beharrezko epean.

28.8. Kontratataren erantzukizuna kalte eta galerengatik

SPKLren 311 artikulua arabera, kontratista izango da garatzen dituen lanen eta ematen dituen prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzulea, eta Administrazioarentzat edo hirugarrenentzat kontratua burutzerakoan berak egindako ez egite, akats, método ezegoki edo ondorio okerrenera ere bai.

Kalte eta galera horiek Toki Erakundearen agindu zuzen eta berehalako baten ondorioz gertatu badira, hark edukiko du haiekiko erantzukizuna, Legeek ezarritako muga barnean.

Beste aukerarik ez dagoen kasuetan eta beti kontratatik ekintza arriskutsurik egin ez badu, kontratua betetzerakoan izandako kalte eta galerak kontuan izanda konpentsazioa jasotzeko eskubidea izango du.

28.9. Datu pertsonalen babesa

Enpresa esleipendunak SPKLren hogeita bosgarren xedapen gehigarritik eratorritako betebeharrak beteko ditu, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoari dagokionez, baldin eta kontratazio honek datu pertsonalak eskuratzeko badakar.

28.10. Hizkuntza irizpideak eta hizkuntzaren trataera

Hondarribiko Udalaren hizkuntza politikarako Euskararen Ordenantzaren bidez eta Hondarribiko Udalaren Euskararen Erabilera Planaren 2018-2022 bidez finkatutako irizpideekin bat etorriko da kontratuaren esleipendunak egingo duen hizkuntzaren erabilera.

1. Zerbitzuan erabiliko den hizkuntzari buruz:

Esleipendunaren eta Hondarribiko Udalaren arteko harreman hizkuntza euskara izango da lehentasunez, bai idatziz baita ahoz ere.

a. Bestalde, enpresa esleipendunari idatzizko dokumentazioa euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniazko bertsioa eskatuko dio Udalak (Kontratuaren xede diren azterlan, txosten, proiektu eta bestelako lanak, softwareetako testuzko eta soinuuzko interfazeak barne). Enpresak administrazioarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak (kontratuak, fakturak, txostenak, bilerak, kontsultak ...) administrazioaren lan hizkuntzaren arabera izango dira, hau da euskaraz.

b. Bestalde, hiritarrentzako inprimakiak, oharra eta jakinarazpenak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz eman beharko dira, bi hizkuntza ofizialetariko edozeinetako batean betetzeko moduan, erabiltzaileak alde aurretik euskara hutsez egiteko modu formalizatuan adierazia ez badu.

c. Esleipendunak kontratuaren jardunaren ondorioz sortutako agerpen publiko orotan euskararen erabilera bermatu beharko du, hau da hiritarren parte-hartze programako bai foro irekietan eta berezietan, bai eragile desberdinekin banakako elkarriketetan.

d. Kanpo errotulazio aldakorra. Obretako seinaleei dagokienean, aurrez baldintza pleguetan eta ondoren kontratuan ongi zehaztuko da herritarrei begira jarritako errotulu, kartel edo oharra euskaraz edota euskaraz eta gaztelaniaz gutxienez, baina euskarari lehentasuna emanez idatzita egon behar dutela.

e. Seinaletika. Ulergarritasuna piktograma bidez bermatu ahal litekeen kasuetan, euskarazkoa ezaguna denean edota euskarazkoa eta erdarazkoa oso antzekoak direnetan euskarazko testua bakarrik izango dute iragarpenek.

2) Euskara gaitasunari buruz:

Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea; horren arabera zerbitzu hizkuntzak euskara eta gaztelania izango dira.

Kasu guztietan herritarren hizkuntza eskubideak bermatuko dira.

3) Betebeharren jarraipenari eta ez betetzeari buruz:

Kontratuaren arduradunek bidezkoak diren neurriak hartuko ditu kontratudunek atal honetan xedatutakoa betetzen dutela egiaztatzeko eta erabilitako hizkuntza ofizialen zuzentasuna eta egokitasuna zaintzeko.

Hizkuntza betebehar horiek behin eta berriz urratzeak kontratua bertan behera uztea ekar lezake, azaroaren 8ko Sektore Publikoaren Kontratuen 9/2017 Legearen 211) artikuluko 1. Puntuko 2. paragrafoari jarraituz.

III. KONTRATUA EGIKARITZEA

29. KONTRATUA BURUTZEA

SPKLren 197 artikulua arabera kontratua egingo da kontratistaren kontura eta ausaz.

Kontratua beteko da klausuletan eta pleguetan ezarritakoa zorrotz beteta, eta kontratistari kontratuaren arduradunak kontratua interpretatzeko emandako argibideen arabera..

Obra kitapena badago neurketan gehiegikeria izan delako, obren zuzendaritzak ez du ordainsaririk ekarriko.

30. EGIKARITZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Honako hauek dira kontratu honen xedea egikaritzeko baldintza bereziak:

- a) Bermatzea beteko direla talde hitzarmen sektorialak eta territorialak.
- b) Erraztea prestakuntza izatea lantokian.

Exekuzio baldintza horiek betetzen ez badira kontratua ebatziko da oinarrizko betebeharrak izaera du eta SPKLren 2. Paragrafoaren 211.1 artikulua arabera SPKLren 201 eta 192 artikuluei buruz.

31. BERANDUTZE ZIGORRAK

Kontratistak bete egin beharko du kontratua burutzeko finkatutako epe osoan kontratua, eta kasua bada zehaztutako epe partzialak ere bai.

Kontratista berandutu egin dela adierazteko ez da beharrezkoa izango Administrazioak aldeztutako aurretik agindurik ematea.

Kontratista, berari egotzi beharreko arrazoiengatik, berandutu egiten bada epe osoa betetzerakoan, Administrazioak erabaki ahal izango du kontratua suntsitzea edo SPKLren 193 artikuluan aurreikusitako zigorrak jartzea.

32. ZIGORRAK KONTRATUKO OBLIGAZIOAK EZ BETETZEAGATIK

Esleipendunak egiten dituen arau-haustek oso larriak, larriak edo arinak izan daitezke.

a) Oso arau hauste larriak dira:

- Plegu honetan ezarritako edozein baldintza edo betebeharrak ez betetzea, kontuan izanda horrez gain gerora bestelako ekintzak ere aplikatu daitezkeela.
- Lanak modu ez erregularrean egitea.

- Zaintza Zerbitzuko arduradunen jarraibideak ez jarraitzea, lanaren garapenaren eta oro har prestatzioa arautzen duten arauen gaian.
- Bi arau-hauste larri edo gehiago egitea.

b) Arau hauste larriak dira:

- Plegu honetan ezarritako edozein baldintza eta betebeharrak ez betetzea oso larri moduan kalifikatua ez denean.
- Udalak, kasua bada, kontratatutako pertsonalaren esku jarritako baliabide materialak eta azpiegitura oker erabiltzea.
- Falta larriak behin eta berriz egitea.
- Zerbitzua ez ematea Udalak ezarritako ordutegiaren barruan.

c) Arau hauste arintzat joko dira aurreko ataletan jaso ez diren gainerako arau hausteak, Plegu honetan ezarritako baldintzen kalterako badira, baina zerbitzu prestazioari kalte larririk egiten ez badiote.

Kontratatari zehapen hauek jarri ahal zaizkio:

- a) Oso arau-hauste larriengatik: 601,00€tik 1.200,00 € bitarte.
- b) Arau-hauste larriengatik 301,00€tik 600,00€ bitarte.
- c) Arau-hauste arinengatik: 150,00€tik 300,00€ bitarte.

Hala ere, arau-hauste oso larriak egiten direnean, Udalak bi aukera izango ditu: klausula honetan aurreikusitako zehapen horiek jarri, edo kontratua Hala ere, arau-hauste oso larriak egiten direnean, Udalak bi aukera izango ditu: klausula honetan aurreikusitako zehapen horiek jarri, **edo kontratua amaitzeko espedienteari hasiera eman.**

SPKLren 194.2 artikulua arabera kontratazio organoak hartuko du zigorak jartzeko erabakia, kontratuaren arduradunak proposatuta halakorik izendatu bada, eta berehala beteko da. Zigor horiek guztizko ordainketaren edo ordainketa partzialaren kontzeptuan kontratatari ordaindu beharreko zenbatekoetatik kenduko dira edo, hala badagokio, jarritako bermetik, arestian aipaturiko ordainketa horietatik kendu ezin direnean.

Ezarritako zehapenari dagokion kopurua dagokion epean ordaindu ez bada, kontratuko fidantzatik kendu ahal izango da, esleipendunak kendutako kopura leheneratu beharko duelarik horretarako errekerimendua egiten zaion datatik 10 eguneko epean kontatzen hasita, edo ordaindu gabe dauden fakturretatik kendu.

Isunak jartzeak ez du esan nahi, kontratua gauzatzeak eskatzen dituen jardueren ondorioz, Udalarri eragindako kalteak eta galerak ordaindu behar ez direnik, SPKLren 194.1 artikulua xedaturikoaren arabera.

Kontratistak, berari egotzi beharreko arrazoiengatik, kontratuaren zati bat betetzen ez badu, Tokiko Erakundeak erabaki ahal izango du, kasuaren egoerak kontuan hartuta, kontratua ebatzea edo atal honetan aurreikusitako zigorrak ezartzea.

33. KONTRATUA LAGATZEA

Kontratistak ezin izango dizkio hirugarren bati kontratuaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak laga, lagatzailearen ezaugarri tekniko eta pertsonalak baitira kontratua esleitzeko arrazoi nagusia.

34. KONTRATUA ALDATZEA

Haren errejimenaren gaian, artikulua hauetan ezarritakoa beteko da: 2017 SPKLren 190, 191 eta 203tik 207ra bitarteko artikulua, eta APKLAren 97 eta 102 artikulua.

Plegu honetan ez da aldaketarik aurreikusi.

Plegu honetan aurreikusita ez dauden aldaketen gaian, SPKLren 205 artikuluan aurreikusitakoa beteko da. Kasu horretan kontratazio organoak adostutako aldaketak nahitaezkoak izango dira kontratistarentzat ekartzen dutenetan, bereizita edo elkaturik, kontratuaren hasierako prezioaren ehuneko 20koa baino handiagoa den aldaketa, BEZ kanpo. Aurreko atalean aurreikusitakoaren arabera aldaketa nahitaezkoa ez denean kontratistarentzat, kontratazio organoak erabakio du aldaketa hori egitea aurretik berak idatziz erabaki hori jasota, eta hala egiten ez bada kontratua ebatziko da SPKLren 206 artikuluan xedatutakoaren arabera. Kasu horietan, kontratua aldatu baino lehen, entzunaldia eman beharko zaio zehaztaperen teknikoaren idazleari, zehaztaperen horiek prestatu baditu kontratazio organoa ez den beste hirugarren batek zerbitzu kontratuaren arabera, gutxienez hiru eguneko epean egokiak ikusten dituen oharpenak egiteko.

Kontratuaren aldaketak, baldin badaude, formalizatu eta argitaratu beharko dira aldaketari buruzko iragarki batean, kontratazio organoaren kontratatzailearen profilean, 5 eguneko epean aldaketa onartzen denetik zenbatzen hasita.

35. KONTRATUA ETETEA

Toki Erakundeak kontratua etetea erabakitzen badu edo etete hori kontratistak eskatuta egiten bada ordainketa lau hilabete baino gehiago atzeratzeagatik 2017ko SPKLren 198.5 artikulua arabera, akta egingo da, ofizioz ala kontratistak eskatuta, eta bertan adieraziko dira horren arrazoi izan diren inguruabarrak eta egitatezko egoera haren egikaritzean.

Kontratua etetea erabakitakoan, Toki Erakundeak, egiazki izan dituen kalteak eta galerak ordainduko dizkio kontratistari, SPKLren 208.2. artikuluko arauak kontuan harturik.

IV. KONTRATUA IRAUNGITZEA

36. KONTRATUA BETETZEA ETA KONTRATUA JASOTZEA

Egindako lanak edo emandako zerbitzuak ezarritako epean eman beharko ditu kontratistak, eta kontratuaren arduradunak aurkeztutako dokumentazioaren edo emandako prestazioaren azterketa bat egingo du eta proposatuko du egitea jasotze ekintza.

SPKLren 311 artikulua arabera, kontratistak kontratua bete duela ulertuko da enpresa horrek prestazio osoa burutu duenean, kontratuan adierazitakoari jarraiki eta Administrazioak eskatu bezala.

Administrazioak erabakiko du enpresa kontratistak eskainitako prestazioa, hori gauzatzeko eta betetzeko ezarritako aginduetara egokitu den ala ez den eta, hórrela egokia bada, kontratatutako prestazioak gauzatzeko eta harrera egitean sumaturiko akatsak zuzentzeko agindua emango du.

Kontratistak eskubidea izango du ezagutzeko eta bere iritzia entzun dadin kontratatutako prestazioa betetzearekin lotura duten gaitan.

Egindako lanak ez badira kontratatutako prestazioetara egokitzen kontratistari egotz dakizkiokeen akats edo hutsen ondorioz, Udalak baztertu egin ditzake lan horiek, eta ez du haiek ordaintzeko betebeharririk izango, edo hala behar badu, ordaindutakoa itzultzeko eskatu ahal izango du.

Jasotzeko ekintza edo adostasuna ekintza formal eta positiboan jasoko da kontratuaren helburua bete eta hurrengo hilabetean edo Baldintza Teknikoen Pleguan kontratuaren ezaugarrien arabera ezartzen den epean. Era berean, jasotze partzialak egin ahal izango dira modu independentean erabili ahal diren kontratuaren zatien kasuan.

Modu jarraituan gauzatzen diren kontratuen kasuan, jasotzeko ekintza kontratatutako prestazioa bukatzean edo kontratu epea bukatzean egingo da.

Ezin izango da pertsonala zerbitzu kontratuaren bidez kontratatu; zerbitzu kontratuak bukatzean ezin izango da inola ere kontratu honetan adierazitako lanak egin dituzten pertsonak erakunde kontratatzailearen personal moduan kontsolidatu. Hartarako, Administrazioak enplegatuek edo arduradunek ezin izango dituzte ekintza hauek egin: enpresa kontratistaren eskumenekoak diren ekintzak, harreman juridiko-laboralaren ondorioz.

37. BERME EPEA EZ EGITEAK ETA AKATSAK

SPKLan ezarritakoa betetzeko, urte bateko berme epea ezartzen da.

SPKLren 311.4 artikulua arabera, verme epean egiaztatzen bada egindako lanetan akatsak edo hutsak badirela, kontratazio organoak eskubidea izango du enpresa esleipendunari akats edo huts horiek konpontzeko agintzeko.

Berme epea bukatzen bada Administrazioak kexa edo salaketarik egin gabe, kontratista salbuetsita geratuko da egindako prestazioaren erantzukizunetik, baina kontuan izanda SPKLren 314 eta 315

artikuluetan ezarritakoa obra proiektuak egitea helburu duten kontratuen akatsak konpontzeari eta erantzukizunei buruz.

38. BERMEA ITZULTZEA ETA KONTRATUA LIKIDATZEA

SPKLren 111 artikulua araberako esleipendunak eskatu beharko du jarritako behin betiko bermea itzultzea kontratuaren exekuzioa bukatuta eta pasatu denean, kasua bada, berme epea.

Bermea ez da itzuliko edo iraungiko berme epea amaitu eta delako kontratua behar bezala bete arte, edo kontratu hori ezeztatu arte kontratistaren errurik gabe.

Kontratuaren likidazioa onartuta eta verme epea pasatuta, erantzukizunik ez badago itzuli egingo da ezarritako bermea edo baliogabetu egingo da kauzio aseguru.

Kontratua bukatu denetik urtebete pasatu ondoren, eta verme epea bukatutakoan, harrera formala eta likidazioa ez badira egin kontratistari leporatu ezin zaizkion arrazoiengatik, berandutu gabe, bermeak itzuliko edo ezeztatuko dira, SPKLren 110 artikuluan aipatutako erantzukizunak garbitutakoan.

39. KONTRATUA BERTAN BEHERA UZTEA

Kontratua bertan behera uzteko arrazoiak izango dira SPKLren 211. artikuluan aurreikusitakoak, eta bereziki 2017ko SPKLren 313. artikuluan jasotakoak zerbitzu kontratuatarako.

Kontratua ebazteko berariazko arrazok dira:

- a) Administrazioarekin kontratatzeak ezarritako baldintzak galtzea, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak xedatutakoaren arabera.
- b) Hala badagokio, adierazitako bitarteko pertsonal eta materialak kontratuari ez atxikitzea.
- c) Pleguko 31. Klausulan adierazitako betebeharrak berezi kontratuaren exekuzioaren baldintzak ez betetzea.
- d) Plegu honen 28.10 klausulan ezarritako hizkuntz irizpideak behin eta berriz ez betetzea.

Kontratua bertan behera uzteko hainbat arrazoi daudenean, ezeztatze horren ondorio ekonomikoei begira eragin desberdinak dituztenak, denboran lehenago agertu dena hartuko da kontuan.

40. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK ETA AUZITEGI ESKUDUNAK

Dituen mugen barnean eta SPKLren 190 artikuluan jasotako baldintzak eta ondorioak beterik, kontratazio organoak ahalmena dauka kontratu administratiboak interpretatzeko, kontratua betetzean sor daitezkeen zalantzak erabakitzeke, interes publikoko arrazoiak daudenean kontratua aldatzeko, kontratua betetzearekin loturik kontratistari lepora dakiokkeen erantzukizuna adierazteko, kontratua eteteko, kontratua bertan behera uzteko eta izango dituen ondorioak zehazteko.

Aipaturiko eskumen horiekin loturiko erabakiak hartzeko bideratzen diren prozeduretan kontratistari entzun beharko zaio.

Kontratuaren interpretazioaren, aldaketaren edo deuseztatzearen edo kontratuaren eraginen ondoriozkoak kontratazio organoak ebatziko ditu. Haren eginbideek bukaera emango diote administrazio bideari, eta segidan betearaziko dira. Nahi izanez gero, haien aurka berraztertzeo errekurtsua jarri ahal izango da hartu zituen kontratazio organoaren aurrean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsuaren bidez inpugnatu daitezke Jurisdikzio hori arautzen duen Legean ezarritakoaren arabera.

Kontratu administratiboak prestatzeari, esleitzeari, haren ondorioei, aldaketei eta iraungitzeari buruz.

Administrazioarekiko Auzi Errekurtsua ezarri ahal izango da, Administrazioarekiko auzien Auzitegiaren aurrean, 29/1998 Legean (uztailaren 13koan, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duenean) ezarritakoaren arabera. Dena dela, interesdunak berraztertze errekurtsua tartejarri ahal izango du kontratazio organoaren aurrean eta kasu horretan ezin izango da lehen aipatutako administrazioarekiko auzi errekurtsorik tartejarri, ez dagoen artean berraztertze errekurtsuari buruzko berariazko edo ustezko ebazpenik, bat etorritz 39/2015 Legean (urriaren 1ekoan, Herri Administrazioen Administrazio Erkideari buruzkoan) 123 artikuluan eta horren hurrengoetan ezarritakoarekin, kontuan izanda gainera interesdunak egokia ikusten duen beste errekurtsu erabil dezakeela.

Era berean, SPKLren 44. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, kontratu honen aurka kontratazio-arloko errekurtsu berezia jarri ahal izango da.



I. ERANSKINA
LIZITATZAILEAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENEK BETE BEHARREKO
PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA (B Gutun-azala)

Izen-abizenak		NAN
Honakoa ordezkatzuz		CIF
Jakinarazpenetarako helbidea		
Tel	Faxa	E-maila:

Jakinda iragarkia argitaratu dela Kontratatzaillearen Profilean, **HONDARRIBIKO HAINBAT KALE ASFALTATZEKO ETA URBANIZAZIO-LAN OSAGARRIAK EGITEKO PROIEKTUAREN IDAZKETA ETA OBRA ZUZENDARITZA** esleitzeko kontratua prozedura ireki eta ohiko tramitearen bidez esleitzeko eskatzen diren baldintza guztien arabera, bat etorritz

A D I E R A Z T E N D U:

LEHENENGO.- Baduela aipaturiko erakunde horren izenean eta legezko ordezkari gisa jarduteko botere aski, nahikoa eta iraunkorra, eta obren, horniduren eta zerbitzuen lizitazio publikoetara joatea dagoela bere ahalmenen artean.

BIGARREN.- Klausula Administratibo Berezien Plegu honen, Baldintza Teknikoen Pleguaren eta kontratu hau arautu behar duen Egikaritze proiektua ezagutzen duela eta baldintzagabe onartzen dituela, eta berariaz eta osorik bere gain eta ontzat hartzen dituela, inolako salbuespen eta erreserbarik gabe.

HIRUGARREN.- Proposamen ekonomikoaren ereduan berariaz adieraziko da eskaintzetan aintzat hartu direla honako alor hauetan: fiskalitatea, ingurumenaren babesa eta enpleguaren babesa, genero berdintasuna, lan baldintzak, laneko arriskuen prebentzioa eta ezintasunak dituzten pertsonen gizarteratzea eta laneratzea, indarrean dauden xedapenetatik etorritako betebeharrak, eta baita ezintasunak dituzten pertsonen kopuru edo ehuneko jakin bat kontratatzeke eta ingurumena babesteko betebeharrak ere.

LAUGARREN.- Bereziki, eskaintza hau egiterakoan kontuan hartu dituela laneko alorretan indarrean dauden xedapenak, bereziki Gipuzkoan aplikagarri diren jardura sektoreetako hitzarmen kolektiboak.

Ondorio horietarako, adierazten du, esleipendun suertatuz gero kontratu honen xedeko jardura egingo duten langileei aplikagarri zaien hitzarmen kolektiboa hauxe dela:

Era berean, behin kontratua esleitu ondoren, langile horiei egiazki aplikatuko zaizkien lan baldintzei buruz eskatzen den informazio guztia emango dio kontratazio organoari.

BOSGARRENA.- Ordezkatzeko duen enpresak betetzen dituela berau irekitzeko, instalazioa egiteko eta martxan jartzeko indarrean dagoen araudiak eskatutako baldintza eta betebeharrak guztiak.

KONPROMISOA HARTZEN DU:

1. Aipaturiko guztiari jarraiki, kontratu hau deialdian eskatutako baldintzak hertsiki beterik egitekoa, honako PROPOSAMEN honen arabera:

ZERBITZUA	ESKaintza Ekonomikoa	
Proiektuaren idatzia eta obraren zuzendaritza fakultatiboa	Prezioa	€
	BEZ (...%)	€
	Guztira	€

EPEA (asteak):	
----------------	-------

Balorazioa egiteko, hilabete bat 4 astez osatua dagoela joko da.

(*) Zenbakitan eta letratan adierazitako zenbatekoen artean desadostasunik badago letratan adierazitako zenbatekoek izango dute beti lehentasuna

2. Prezioan kontzeptu guztiak sartuta egongo dira, edozein zerga alorretako gastuak, tasak eta arielak barne.

.....n, 20.....(e)ko.....aren.....(E)an.
Izenpea.

III. ERANSKINA JAKINARAZPENAK ETA KOMUNIKAZIOAK JASOTZEKO DATUAK
(A Gutun azala)

Izen abizenak	NAN
Bere izenean	
	IFK

** Aldi Baterako Enpresa Elkartearen kasuan, eredua egokitu ABEE osatzen duten enpresa guztien ordezkari buruzko datuak eransteko.*

ADIERAZTENDUT:

SPKLren hamabostgarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera **HONDARRIBIKO HAINBAT KALE ASFALTATZEKO ETA URBANIZAZIO-LAN OSAGARRIAK EGITEKO PROIEKTUAREN IDAZKETA ETA OBRA ZUZENDARITZA** kontratua esleitzeko prozedurari buruz, bide elektronikoaren bidez jakinarazpenak eta komunikazioak egiteko datuak hauek direla:

Pertsona hartzailearen datuak (1. abizena, 2. abizena, Izena)						
Kalea/Plaza/Hiribidea	Zk.	Solairua:	Eskua:	Udalerria	PK.	Lurraldea:
Hizkuntza: __ Euskara __ Gaztelania (X jarri egokia denean)		Posta Elektronikoaren Helbidea::				
		Telefonoa:				
		Telefono mugikorra::				

(*) Esleipenduna Aldi Baterako Enpresa Elkartea bada, helbide bat bakarrik aurkeztu beharko dute jakinarazpenetarako eta komunikazioetarako.

**III ERANSKINA ALDI BATERAKO ENPRESA ELKARTEA ERATZEKO
KONPROMISOAREN EREDUA (A Gutun-azala)**

Izen-abizenak	NAN
Bere izenean	
Honakoa ordezkatzuz	IFK

Izen-abizenak	NAN
Bere izenean	
Honakoa ordezkatzuz	IFK

ADIERAZTEN DUTE:

1. Hartzen dutela Aldi Baterako Enpresa Elkartea modu formalean eratzeke konpromisoa **HONDARRIBIKO HAINBAT KALE ASFALTATZEKO ETA URBANIZAZIO-LAN OSAGARRIAK EGITEKO PROIEKTUAREN IDAZKETA ETA OBRA ZUZENDARITZA** kontratuaren esleipendun gertatzen badira, parte-hartze portzentaje honekin:

Enpresaren Izena (Izen Soziala)	%

2.izendatzen dutela Elkartearen ordezkari eta ahalduen bakarra ahalmen nahikoa emanez ondoriozko kontratuaren eskubideak erabiltzeko eta betebeharrak betetzeko kontratua bukatu arte.

Enpresa

Enpresa

Izenpea.

Izenpea.

** Aldi Baterako Enpresaburu Elkartea eratzeke Konpromisoa, egokia bada. Aldi Baterako Enpresa Elkartea eratuz lehiatu nahi duten enpresaburuek elarteaosatzen dutenen izenak eta egoerak adierazi beharko dituzte, baita bakoitzaren partaidetza, eta azaldu beharko dute aldi baterako elkartea modu formalean osatzeko konpromisoa hartzen dutela, kontratuaren esleipendunak badira. Aldi baterako enpresa elkartearen iraupena bat etorriko da, gutxienez, kontratuaren iraupenarekin hura bukatu arte. Agiri horrek Elkartea osatzen duten enpresa bakoitzaren ordezkariak sinatua izan beharko du. Enpresa bakoitzak gainera bere Erantzunkizunpeko Adierazpena aurkeztu beharko du.*



IV. ERANSKINA
ENPRESA TALDEKO PARTAIDEA DELA DIOEN ADIERAZPENA (A GUTUNAZALA)

Izen-abizenak		NAN
Honakoa ordezkatzuz		IFK
Jakinarazpenetarako helbidea		
Tel	Faxa	E-maila:

Jakinda iragarkia argitaratu dela Kontratatzailearen Profilean, **HONDARRIBIKO HAINBAT KALE ASFALTATZEKO ETA URBANIZAZIO-LAN OSAGARRIAK EGITEKO PROIEKTUAREN IDAZKETA ETA OBRA ZUZENDARITZA** esleitzeko kontratua prozedura ireki eta ohiko tramitearen bidez esleitzeko eskatzen diren baldintza guztien arabera, bat etorritz

ADIERAZTEN DU berak ordezkatzeko duen enpresa

☐ **Bai** dagoela Merkataritza Kodearen 42.1 artikulua kasuren batean.

☐ **EZ** dagoela Merkataritza kodearen 42.1 artikulua kasuren batean.

Erantzuna baiezkotzea bada:

☐ **EZ** duela kontratuaren esleipenean parte hartzen, talde bereko enpresek edo banakako proposamenak aurkezturik Merkataritza Kodeko 42.1 artikulua ezartzen dituen aukera kasuetan sartuta daudenekin

☐ **BAI** Kontratuaren esleipenean parte hartzen duela talde bereko enpresek edo banakako proposamenak aurkezturik Merkataritza Kodeko 42.1 artikulua ezartzen dituen aukera kasuetan sartuta daudenekin; enpresak hauek dira:

IFK Zk.

Sozietaten izena

(Lekua, data eta sinadura)

(*) Merkataritza Kodeko 42.1 artikulua:



V. ERANSKINA
BALIABIDEAK ATXIKITZEKO KONPROMISOA

Nombre y apellidos	DNI
En nombre propio	
En representación de	CIF

Jakinda iragarkia argitaratu dela Kontratatzailearen Profilean, **HONDARRIBIKO HAINBAT KALE ASFALTATZEKO ETA URBANIZAZIO-LAN OSAGARRIAK EGITEKO PROIEKTUAREN IDAZKETA ETA OBRA ZUZENDARITZA** esleitzeko kontratua prozedura ireki eta ohiko tramitearen bidez esleitzeko eskatzen diren baldintza guztien arabera, bat etorritz

A D I E R A Z T E N D U T:

1. Konpromisoa hartzen duela baliabideak atxikiko dituela, kaudimen baliabide moduan, kontratua esleitzeko prozeduran onartzeko:

Baliabide pertsonalak atxikitzeko konpromisoa:

Baliabide materialak atxikitzeko konpromisoa:

2. Baliabide personal eta material hauek aurkeztutako proposamenaren, eta ondorioz esleipendun gertatzen den kontratuaren zati izango direla, eta enpresa esleipendunak mantendu egingo dituela zerbitzua burutzen den denbora guztian. Horiei buruz egiten den edozein aldaketa Hondarribiko Udalarik jakinarazi behar zaio. Betetzen ez bada, horrek kontratua bukatzea ekarri ahal du.

.....n, 20....(e)ko.....aren.....(E)an.
Izenpea.